Bestelako Xedapenak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
INDUSTRIA, BERRIKUNTZA,
MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

60

339/2004 DEKRETUA, urriaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua (SPRI) SA sozietatearen kapital-zabalkuntzan parte hartzeko baimena ematen diona.

SPRI Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuaren Administrazio Kontseiluak, 2010eko martxoaren 31n egindako bileran, erabaki zuen Akziodunen Batzar Orokorrari sozietatearen kapitala 22.000.000 euroz gehitzea proposatzea.

Hala eta guztiz ere, jasotako eskaera analizatu eta, ondoren, SPRILURek inbertsio-proiektuak aztertu eta gero, atzera bota da 2010eko Aurrekontu Orokorren kontura aurrera eramatekoa zen Ballonti II (Ortuella) deritzon proiektua. Hortaz, Sprilurren egin beharreko kapital-zabalkuntza 10.050.000 eurora murriztu da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa SPRI Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SA sozietatearen bazkide denez, lehentasunezko eskubidea du sozietatearen Akziodunen Batzar Nagusiak jaulkitzen dituen akzio berriak harpidetzeko, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 304. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuak honako hau ezartzen du 110.1 artikuluan: enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen saileko buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea loturik duen edo loturik izango duen saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta ematen den egunetik aurrera izango du indarra.

Kapitala ordezkatzen duten baloreak eskuratzeko baimena ematen duen dekretuak nahitaez adieraziko ditu, non eta doako eskuratzea ez den, sozietatearen xedea eta EAEk, zuzenean nahiz zeharka, zenbateko partaidetza-portzentajea izango duen sozietatean.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

60

DECRETO 339/2010, de 21 de diciembre, por el que se autoriza a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi la toma de participación en la ampliación de capital de la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (SPRI).

El Consejo de Administración de la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (SPRI) acordó en su reunión del día 8 de octubre de 2010 proponer a la Junta General de Accionistas una ampliación del capital social por importe de 22.000.000 de euros.

Sin embargo, analizada la solicitud recibida y tras posterior análisis de los proyectos de inversión por parte de Sprilur, se ha desestimado la materialización con cargo al Presupuesto de 2010 del proyecto Ballonti II (Ortuella) por lo que la ampliación de capital necesaria en Sprilur se reduce a 10.050.000 euros.

La Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en su calidad de socio de la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (SPRI), tiene el derecho de suscripción preferente de las nuevas acciones, que, en su caso, acuerde emitir la Junta General de Accionistas de la citada Sociedad Pública, de conformidad con lo previsto en el artículo 304 del Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Sociedades de Capital.

El artículo 110.1 del Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley del Patrimonio de Euskadi, establece que la adquisición de bienes y derechos integrantes del patrimonio empresarial requiere autorización previa del Consejo de Gobierno, por decreto, a propuesta conjunta del consejero o consejera competente en materia de patrimonio y del consejero o consejera del departamento al que, directamente o a través de un ente instrumental, se encuentre o vaya a encontrarse vinculada la sociedad. El decreto será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco, sin perjuicio de su eficacia desde la fecha en que se dicte.

El decreto que autorice la adquisición de valores representativos de capital, salvo que se trate de adquisición a título gratuito, indicará necesariamente el objeto social y el porcentaje de participación, directa o indirecta, que tendrá la Comunidad Autónoma en la sociedad.

Ondokoak dira SPRI Industri Sustapen eta Birmoldaketarako Sozietatea SA sozietatearen helburu sozialak:

«Industria sustatzen laguntzea, ikerketen bidez, eta kudeaketa, ekonomia, teknika eta industriarako interesa duten bestelako arloetan zerbitzu-aholkularitza emanez.

Enpresa berrien sorrera sustatzea, hala nola jada martxan daudenen zabalkundea, garapen teknologikoa eta esportazioari arreta berezia eskainiz.

Enpresen arteko jarduera komunak eta kooperaziokoak sustatzea, horrek lehiakortasuna indartzera eramaten duenean.

Enpresen onbideratze eta birmoldaketa prozesuetan inplikatutako alderdien indarrak era osagarrian laguntzea, betiere bideragarritasun baldintza objektiboak biltzen badituzte.

Ikerketa eta garapeneko proiektuak sustatzea, izan prozesu berrietan zein produktu industrialetan eta honi loturiko zerbitzuetan.

Sozietatearen helburuekin zerikusia duen bestelako edozein.»

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Berrikuntzako sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko abenduaren 21ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena ematea SPRI Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SA sozietateko Akziodunen Batzar Orokorrak erabakitzen duen kapitalzabalkuntzan parte hartzeko. Zabalkuntza hogei milioi eta berrogeita hamar mila eurokoa (20.050.000) da. Halaber, baimena ematen zaio aipatu batzarrak ezarritako epetan eta moduan ordaintzeko, bai eta sozietatearen estatutuetan dagokion aldaketa egiteko ere. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak % 98,95eko parte-hartze zuzena izango du Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua (SPRI) SA sozietatean.

2. artikulua.– Ondare eta Kontratazio zuzendariari ahalmena ematea aurreko artikuluan xedatutakoa aurrera eramateko beharrezkoak diren jarduerak gauzatzeko eta agiriak izenpetzeko.

El objeto social de la sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, SPRI, S.A. es:

«Contribuir a la promoción industrial mediante la realización de estudios, prestación de asesoramiento de servicios en los ámbitos de gestión, económico, técnico y otros de interés industrial.

Fomentar la creación de nuevas empresas, así como la expansión de las ya establecidas, prestando particular atención al desarrollo tecnológico y a la exportación.

Fomentar las actuaciones comunes y de cooperación entre empresas cuando ello conduzca a reforzar su competitividad.

Apoyar con carácter complementario los esfuerzos de las partes implicadas en los procesos de saneamiento y reconversión de empresas, siempre que reúnan condiciones objetivas de viabilidad.

Fomentar los proyectos de investigación y desarrollo, tanto de nuevos procesos como en productos industriales y servicios conexos.

Cualesquiera otras que tengan relación con el ejercicio de sus fines».

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Economía y Hacienda y de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 21 de diciembre de 2010,

DISPONGO:

Artículo 1.– Autorizar a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi la suscripción de la ampliación del capital social que, en su caso, acuerde la Junta General de Accionistas de la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (SPRI), por importe de veinte millones cincuenta mil euros (20.050.000) y a su desembolso en los términos y plazos señalados por la referida Junta, así como a la consiguiente modificación de los estatutos sociales. La participación directa de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la Sociedad para la promoción y reconversión industrial, SPRI, S.A. será del 98,95%.

Artículo 2.– Facultar al Director de Patrimonio y Contratación para realizar cuantas actuaciones y suscribir cuantos documentos sean necesarios para la ejecución de lo dispuesto en los artículos anteriores.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko abenduaren 21ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza
eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos desde el día de su aprobación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de diciembre de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

El Consejero de Industria, Innovación,
Comercio y Turismo,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.